

**SANTA EUFEMIA AZOKAKO TALOEN TXOSNA JARTZEKO BAIMENA ENKANTE BIDEZ
ESLEITZEKO KONTRATAZIO MAHAIA****A K T E A**

EGUNA	: 2016ko abuztuaren 30ean
LEKUA	: Gizarte eta Kultura Etxean
HASIERA ORDUA	: 8:15
AMAIERA ORDUA	: 8:30
PARTAIDEAK	: AINGERU ASTUI ZARRAGA (Lehendakaria) BENITO IBARROLAZA MUNITIZ JON IÑAKI UNANUE ASTOREKA EDURNE MARTINEZ TORRE KARMELE MUÑO A ARRIGAIN
IDAZKARIA	: MIRENLUR JORGE ASTIAZARAN

Santa Eufemia azokako taloen txosna jartzeko baimena enkante bidez esleitzeko deialdian eskaintza bi aurkeztu dira, hain zuzen be, honako honeek:

- IÑIGO AURREKOETXEA AREVALO
- ANA M^a SISTIAGA FANO

“Dokumentazio Orokorra” azpi-izenburua daukan A kartazalak zabaldu dira eta Karmele Muñoa andreak eskaintzetan aurkeztu dan edukina aztertu da eta honako honek falta dirala egiaztatu dau:

IÑIGO AURREKOETXEA AREVALO

- Jardueraren erantzukizunaren zibilaren aseguruaren kopia
- Jarduera garatzeko beharrezkoak diran baimenak egunean izatearen aitortpena

ANA M^a SISTIAGA FANO

- Janariak manipulatzeko beharrezko formakuntzaren egiaztagiria (aurkeztutakoa ez da ondo ikusten).
- Jarduera garatzeko beharrezkoak diran baimenak egunean izatearen aitortpena
- Gizarte Segurantzaren egunean egotearen ziurtagiria.

Lizitzaileei hiru eguneko epea emongo jake, A kartazaleko falta dan dokumentazioa aurkezteko.



Eta gehiago barik, Batzarra amaitutzat emon da, goian aipatutako egun, ordu eta tokian, idazkari legez ziurtatzen dodana.

BATZORDEKO IDAZKARIA

